

Kroaziak indar armatuak gatazkara ez bidaltzeko agindua jaso du

Borrokek jarraitzen dute eta Banijan hemezortzi lagun hil ziren herenegun

Lehendakaritza
Kolegiatuak, Kroaziako borrokek zirela eta bilduta zegoenak, herenegun Kroaziako agintariei gatazka lekuetara indar armaturik ez bidaltzeko agindu zien. Kroaziako borrokek areagotu egin dira aste honetan, Armada Federala gutxiengo serbiarren alde eraso egiten hasi denetik. Erduten hamabost lagun hil baziren, herenegun beste hemezortzik galdu zuten bizia Banijan.

BEOGRAD

Franjo Tudjman-ek, Kroaziako lehendakariak Krajina eta Eslavoniako lurraldeei autonomia emateko eskaintza eta Kroaziako Gobernuan partehartze handiagoa edukitzeko egin arren, lurralde horietan gehingoa diren serbiarrek ez dute onartu horrelakorik eta borroka egiten jarraitzen dute, beren lurralde kroaziarrek serbiari lotzeko asmoarekin.

«Cetnik-ak» (horrela deitzen diote beren buruari milizia serbiarrek) Armada Federalaren babesa jaso du. Soldadu federalet, bere agintarien



Goardia nazional kroaziar bat Banijan, borroken ondoren.

LASZLO BOLOGH.

aginduei jaramonik egin gabe, herenegun Goardia Nazional kroaziarri eraso egin zioten, eta elkarren arteko enfrontamenduetan hemezortzi lagun hil ziren Banija herrian. Tanjug prentsa agentzi ofizialak adierazi zuenez. Tanjug agentziaren arabera, gutxienez hamalau goardia nazional eta beste lau miliziano serbiar dira hildakoak.

LEHENDAKARITZA KOLEGIATUAREN ERABAKIA

Herenegungo Lehendakari-tza Kolegiatuaren bileran Kroaziari agindu zitzaion indar armaturik ez bidaltzeko gatazka lekuetara. Stjepan Mesic kroaziarra, Estatu Burutzako buruzagia kontra agertu zen eta Janez Drnovsek esloveniarrak abstenitu egin zen.

✓ Egon Scotland kazetari alemaniarra ostiraleko borroken erdian harrapatu zuten, eta milizia serbiarrek tirokatu eta odolustuta hil zen herenegun

Goardia Nazional kroaziarra desegiteko agindua ere eman zitzaion Kroaziari, baina hori egiteko ez du inolako asmorik, alde batetik bere defentsa unitate propioak edukitzeko eskubidea duela uste duelako, eta bestetik, milizia serbiarrek armatuta dauden bitartean ez duelako erretiratzeko asmorik, eta oraindik gutxiago Armada Federala serbiarren alde jarri denetik.

Europako Komunitateko (EK) Legebiltzarrari Lehendakaritza Kolegiatu gongibidatzeko eskatuko die Roland Dumas eta Dietrich Genscher-ek, Frantzia eta Alemaniako Kanpo Arazoetako ministroek. Bi ministro hauen helburua Jugoslaviako krisiko alde guztien jarrera eta iritziak jasotzea da. EK-k ez du oraindik erabaki begiralerik bidaliko dituenik Kroaziara, Esloveniari Armada Federala erretiratu aurretik.

Eslovenian hildako bi kazetari austriarrei, Banijan hildako kazetari alemaniarra gehitu zitzaion herenegun. Egon Scotland kazetaria ostiraleko borroken erdian harrapatuta gelditu zen bere autoaren barnean. Bertatik irten zenean, milizia serbiarrek tiro egin zioten, eta Goardia Nazional kroaziarrek ospitalera eramanez hil zen odolustuta. Scotlanden heriotzaren ondoren, beste lau kazetari atzeritarren egoeraz kezkatzen hasi dira dagoeneko. Banijan, Scotland ez ezik, hiru kazetari austriar eta iparramerikar bat ere zeuden.

Madagaskar: Gobernu paraleloaren burua gendarmeei bahitu

ANTANANARIVO

Albert Zafi Madagaskarreko Gobernu «alternatiboko» lehen ministroa 'bahitu' zuen atzo gendarmez osatutako komando batek, oposizioko iturriek salatu zuten. Zafiren atxilotetarekin sei dira legezko Gobernuak exekutibo paraleloko arduradun bahituak azken lau egunotan, hauen artean oposizioak izendatutako hiru ministro.

Ekintza honen berri izatean, Gobernu alternatiboko gaitz nontzeko kideek beren bizilekuetatik ihes egin zuten eta klandestinitatera igaro, oposizioko iturriek azaldu zuten. Aurkitu eta bertan atxilotzeko agindua dago kide hauen aurka. Atxilotuak non dauden inork ez daki, oposizioaren esanetan Antananaribo, Madagaskarreko hiriburutik 50 kilometrorra dagoen koartel batean egon badaitezke ere.

Didier Ratsiraka lehendakariak asteartean ezarritako sitio egoeraren arren, oposizioak ministeritzak hartzen jarraitu zuen.

Etteratze deiak hautsiz, manifestazioak egiten dira eta prentsako zentsura ez da errespetatzen. Horregatik, Gobernuak oposizioko liderrek bahitzeko erabakia hartu duela dirudi, protesta ekintzak bururik gabe jarrai ez dezaten.

Ekainaren 10tik honako istiluen arrazoia, Ratsirakak Konferentzia Nazionala eratze esakera ukatzea izan zen, eta hiru hildako izan ziren ostirala arte protestak bake-tsua izan baziren ere. Egoera honek Gobernuaren jarreraren gogortzea suposatzen du oposizioaren ustez, eta hemendik aurrera «denak balio du, baita indarkeriak ere».

Bush-Gorbatxov: Indar berriz dator sovietarra Gailurrera

DONOSTIA

Mikhail Gorbatxov Soviet Batasuneko (SES) Lehendakariak indarberrituta egingo dio aurre George Bush kide estatubatuarrekin egingo duen bilerari, Alderdi Komunistako Komite Zentralaren laguntza eta errepublikekin Batasun Tratatuen hitzarmena lortu ondoren.

Gorbatxov bederatzi errepubliken adostasuna bakarrik duen arren, eta Tratatuen testua bakarrik onartuta, hitzarmen honek SESko lehendakaria errepublika eta zentruaren ordezkari bakartzat aurkeztu du. Hala ere, Gorbatxov bere lidergoa sendotzeko nazioarteko laguntza behar du, Bushek eskainiko diona hain zuzen. Nazioarteko oinarria Alderdiko sektore kontserbadore, militar eta baita populazioaren aurrean krisia konpontzeko garantia bezala agertzen da.

G-7 bileran laguntza tekniko lortu ondoren, Gorbatxoven helburua Bushekiko gailurrean EEBBekin erlazioak sakontzea izango da. EEBBek elkarlanerako aurrez jarri duten baldintza bakar sistema demokratikoa eta merkatu liberaleko edozein bide zilegi denekoa da, barne arazoak kontutan hartuz. Azken eguno-

✓ Bush: «Bilera lehendakariarekin bada ere, ez dut Federazioa osatzen duten errepublikekin kontakturik bazterten».

tan izandako Alderdi Komunistaren Kongresuan Gorbatxov eskuratu duen laguntza baldintzatua eta aurrez aipatutako Batasun Tratatua bidea zabaldu dute erreforma politiko eta ekonomikoei.

George Bushek «Pravda» egunkariari eskaintako elkarriketan «bilera lehendakariarekin bada ere, ez dut Federazioa osatzen duten errepublikekin kontakturik bazterten», adierazi zuen. Etxe Zuriko iturriek EEBB ez direla bide federal edo zentralizatuaren alde itengo azaldu zuten.

Potentzien arteko erlazioez gain, beste aztergai ere izango da. Kooperazio ekonomikaren arloan, Bushek G-7 gailurrean eskaini zitzaizkion hitzak baino gehiago eraman nahi du Moskura. EEBBek honetarako SES ekonomikoki lehentasuna duen nazio bezala izenda dezake, ekonomia sovietarra aurrera irten dadin. Horrez gain, Bush eta Gorbatxov arma murrizketa Tratatua itxiko dute.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ZUZENTZA SAILA

1991ko uztailaren 29ko E.H.A.A.aren 152 zenbakian ondoren zehazten den iragarpena agertuko da:
LEHIAKETA PUBLIKOA Euskal Autonomi Elkarteko Zuzentza Administrazioa informatizatzeko Planaren Bigarren Faserako Informatika Tresneria hornitu, ezarri eta mantentzeko dena.
Espedientea: S-008/91-DJ.
Xedea: Iragarpen honen idazpuruaren datorena, honako lortetara banatua:
1. LOTEA: Balmaseda, Durango, Gernika, Getxo, Azpeitia, Bergara, Elbar, Iruia, Tolosa eta Amurrio. Epaia: Berritzi zuzenduko informatika tresneriaren osagai fisikoak eta Logical de Base delakoa.
2. LOTEA: ORACLE harreman datu basea.
Lotz lizitatzeko aukera: eskaintzak lortu bati edo lortu biei buruzkoak izango dira. Administrazioak lizitatzaila baten edo batzuen aldeko esleipena egin ahaliko du.
Esleitzen duen Erakundea: Eusko Jaurlaritza Zuzentza Saila, Wellington Dukea kalea, 2. zenbakia, Gasteiz (Araba). Telefono zenbakiak: 24.60.00, 24.72.00, 24.90.00. Prefijoak: 945; Telefaxa: 22.62.57.
Esleitzeko era: Lehiaketa Publikoa.
Aurrekontua:
1. Lotea: 115.000.000 pta.
2. Lotea: 25.000.000 pta.
Burrutze epea: 1991ko abenduaren 31ra arte.
Burrutze tokia: Oinarri Teknikoetan agertzen da.
Bulegoak: Eusko Jaurlaritza Zuzentza Saileko Kontratazio Mahaiko idazkaritzan, Eusko Jaurlaritzaaren egoitzan, Gasteizko Wellington Dukea kalearen 2. zenbakian dago Oinarri Arauen Plegua, interesdunen eskutik.
Fidantzak eta bermeak: Pleguaren karatulan agertzen dira.
Eskaintza ereduak: Pleguaren eranskintza datozenak.
Aurkezteko lekua eta epea: eskaintzak Eusko Jaurlaritza Zuzentza Saileko Kontratazio Mahaiko idazkaritzan 1991ko irailaren 12ko goizeko hamarretan baino lehen aurkeztu beharko dira.
Eskaintzen agerteratzea: Kontratazio Arautegi Orokorren 100. artalean bildutako eran bat ere jasotzen ez bada, 1991ko irailaren 17ko eguerdiko hamarretan egingo da, Eusko Jaurlaritzaaren egoitzan, Gasteizko Wellington Dukea kalean, 2. zenbakian.
Aurkeztu beharreko agiriak: Lehiatzaileek, Administrazio Klausula Partikularretan zehazten diren agiriak aurkeztu beharko dituzte.
Informazio gehigarria: Lehiatzaileentzako gaitz nontzeko informazio interesgarria Pleguan dago.
Gasteiz, 1991ko uztailaren 22an. ZERBITZU ZUZENDARIA: Luis Maria Valle Bollnaga